

Beldur Barik lehiaketa

Ikasleak eta egileak: Jaione Saenz, Nagore Davila, Lide Aranzabe eta Ainhoa Aralucea.

Data: 2019ko Maiatzaren 22a

Irakaslea: Miren Edurne Aranguren Vigo

Ikasgaia: Gizarte eta komunitate animazioa

Gradua: Gizarte langintza

Fakultatea: Lan harremanak eta gizarte langintza (Araba atala)

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU



Aurkibidea

Sarrera.....	2
1. Testuingurua	3
1.1. Sorrera.....	3
1.2. Helburuak.....	4
2. Metodologia.....	6
2.1. Diagnosia	6
2.2. Esku-hartzea eta programazioa	7
2.2.1. Beldur Barik jarreraren hiru norabideak	9
2.3. Ebaluazioa.....	10
3. Animazioaren praxia.....	12
3.1. Egutegia	12
3.2. Baliabideak	14
4. Partaidetza	16
4.1. Komunitatean izandako eragina.....	17
Ondorioak	19
Bibliografia.....	20

Sarrera

Animazio soziokomunitarioa deritzon ikasgai honetan, azken lan hau bermatzerako orduan, Beldur Barik proiektuan oinarritu gara, zehazki barnean aurrera eramaten duen lehiaketan.

Ekimen hau Emakundek sortutako proiektua da genero ikuspegia landu eta jendarteko desberdintasunei erantzun bat eman nahi diona. Helburu nagusia proiektuaren nondik norakoak azaltzea da, animazio soziokomunitarioa barne hartzen duen ekintza baten azalpena hala nola.

Ander-Egg (1989) egileak animazio soziokulturalaren definizioa horrela adierazten du; “gizarte teknologia bat da, pedagogia parte-hartzaile bat oinarri duena, bizi kalitaterako alderdi desberdinetan ekitea du helburutzat, mugiarazten, estimulatzen eta jendearen parte-hartzea sustatzen, komunitatearen eboluzio soziokulturala lortu nahian”.

Lan honen bitartez, Ander Egg egileak teorizatutako animazio soziokomunitarioaren praktika on bat adierazi nahi dugu. Horretarako Beldur Barik programaren prozesuan, metodologian, parte-hartzean eta antolakuntzan zentratu eta aurrera eramaten duten ekintzaz arituko gara.

Aldaketa soziala oinarri nahitaezkoa suertatzen zaigu orainoan. Aldaketa nahi hau gabe, animazio soziokomunitarioa ez litzatekelako posible izango. Programa honen baitan genero desberdintasunaren eraldaketa bat bilatzen da modu komunitario eta elkarlaneko batean. Elkarre-bizitzari eta behar kolektiboari arreta eta konponbidea ematea errazten duten jarduerak da.

Beraz, jarraian, animazio soziokomunitarioari praktikotasuna eman eta kasu erreal baten azalpenari ekingo diogu.

1. Testuingurua

1.1. Sorrera

Beldur Barik, 2009.urtean sortzen den proiektu bat da, Berdinsarearen baitan ematen da. Emakundetik jarri zen martxan, Berdinsarea, Eudelen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien bultzadarekin batera. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) eta EITB-ren laguntza dauka.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, azaroaren 25eko ospakizunen harira, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, elkarlanean antolatzen dituzte kanpainak. Bera, 2006an, Berdinsarea eratu zen (berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten duten udalek osatutako sarea da) elkarlanean lehendabiziko sentsibilizazio kanpaina abiarazi zelarik, ezaugarri eta tamaina desberdinetako 41 udalerrik baino gehiagok babesa emanaz.

Urterik urte, ekimenetan, ahalegina egin da indarkeriari buruzko kanpainetan azaltzen diren estereotipoetatik aldendu (indarkeria fisikora mugatuta, eta emakumea biktima irudira mugatuta) eta ikuspegi positibotik heltzeko. Izan ere, beharrezkoa ikusten izan da emakumeen ahalduntzea bultzatzera bideratutako mezuak indartzea eta herritar guztien inplikazioa lortzea. Mutilekin, berriz, jarrera sexistei aurre egiteko neurriak lantzea, eta eraso sexisten aurrean zeregin aktiboa izan dezaten animatzea.

Testuinguru honetan Beldur Barik programa sortzen da. Etengabeko mugimenduan eta handitzen doan programa da, eta bertan lan egin eta inplikatzeko diren pertsonen beharrezanetara egokitzen dena. Beldur Bariken baitan, ikus entzunezko lehiaketa bat sortzen da, gaur egunera arte arrakasta handia izan duena.

2010ean lehenengo edizioa egin zenetik, urtero hazi egin da lanen kopurua, lehenengo edizioko 100 lanetatik 2016ko 363tara iritsiz. 2011. urtetik aurrera ikuspegi aldaketa bat eman zen eta lanen kalitate artistikoa baino, agertzen zuten jarrera kontuan hartzea pasa zen. Urte horretan ere ikastetxeen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen inplikazioa sustatu zen, inplikazio hori urteetan zehar mantendu delarik.

Urte hauetan zehar programa finkatzea lortu da, bai programak indarkeria sexista ekiditeko egiten duen abordatzea zein den transmitituz, baita lan egiten den markoak finkatuz: gazteekin lan prozesuak finkatuz, lokala ardatz delarik. Urteak aurrera joan ahala, erreminta berriak sortu dira eztabaida prozesuak errazteko eta, baita, indarkeria sexistari aurre egiten dioten Beldur Barik Jarrerak zeintzuk diren identifikatuz.

1.2. Helburuak

Hortaz, arestian aipatutako testuinguru horretan sortzen da proiektua, eta jarraian bere helburuak zein izango diren azalduko dugu.

Helburu orokorrak:

- Kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak eraldaketarako konpromiso pertsonal zein kolektiboa adierazten dituzten jarrerak bultzatzea.
- Gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendarte eraldaketan laguntzeko.

Modu berean, **lehiaketaren helburuak** hauek izango lirateke:

- Udalerri ezberdineko gazteek aktiboki parte hartzea Beldur Barik lehiaketan.
- Emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutileen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea.
- Lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izatea.

Ikusi dugun moduan programaren barruan kokatzen da ikus-entzunezkoen lehiaketa, eta hain zuzen horixe da guk, Animazio Sozio Komunitateko ekimen bezala aztertu duguna. Ikus-entzunezkoen lehiaketa, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, nahiz eta, honek gero inpaktu sozial orokorragoa izan, hau da, adin guztietako pertsonengana iritsi. Aipatu bezala, lehiaketaren xedea da, ikus-entzunezko produkzioen bidez erakustea neska eta mutilek nola erantzuten duten desberdintasun egoeren aurrean, eta,

nola egiten dioten aurre indarkeria sexistaren adierazpenei, Beldur Barik jarrerarekin.

Lehiaketaren bitartez, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea lortzen da. Gainera, parte-hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute, alegia, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeke konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da: nesken ahalduntzean oinarritutako gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilek matxismoaren aurka hartutako konpromiso pertsonalak eta kolektiboak adierazten dituenak.

Ekimen hau aukeratzearen arrazoia sinplea da, taldeko kideon nerabezaroan programa hau oso gertukoa izan zen, gure ikastetxeetan aurkeztu zuten eta batzuk parte hartu ere bai. Interesgarria iruditzen zitzaigun parte hartu genuen ekimen hori aztertzea eta animazio komunitario gisa ulertzea. Izan ere, garbi dago ekimen hau ASK-en barruan kokatzen duguna.

Hainbat arrazoiengatik kokatzen dugu modu horretan; alde batetik, ikusten dugu nola gazteen inplikazioa bultzatzen duen jendarte eraldaketan, hau da, arazo sozial edo bidegabekeria bat errotik aldatu nahi da eta gazteen inplikazioa da gakoa hau burutzeko.

Gainera, parte-hartze hori kolektiboa eta aktiboa da, ikus-entzunezko horiek taldean prestatzen eta aurkezten dituzte eta beraiek burutu behar dituzte osotasunean.

Bestetik, eztabaida eta gogoeta prozesuak indartzeko baliabideak sortzen dira, ikus-entzunezkoetan oinarritutako unitate didaktikoak daude, BB abestia edota eraso sexistei aurre egiteko gida.

Hori gutxi ez balitz, lehiaketa honetan parte-hartzeak, euren familia eta inguruko guneetan gai honetaz hitz egitea suposatzen diete, eta beraz, gizarteko kide edo generazio desberdinengana iristen dela ulertzen dugu.

2. Metodologia

Ondorengo zati honetan Beldur Bariken lehiaketa oinarri harturik, erabilitako metodologia azalduko da. Beldur Barik proiektuaren barruan garatzen den teknika gazteen parte hartze kolektiboa sustatzeko teknika nagusia lehiaketaren bidez egiten da.

Beldur barik lehiaketaren metodologia nagusia parte hartze kolektiboan suertatzen da, izan ere, komunitate bati zuzenduta dagoen proiektua baita. EAE-ko gazteei zuzendurik dago lehiaketa, eginkizun nagusia gazteak zuzenki inplikatzearan datza, jendarte eraldaketan indartzeko ekimenen bidez, parte-hartze kolektiboa eta indarkeria sexistaren aurkako jarrera aktiboa sustatzeko asmoarekin.

Bestetik, lana garatzeko eta diagnostiko bat aurrera eraman ahal izateko lehenik eta behin elkarrizketa bat gauzatu dugu Miren Iosune Ortizekin, Emakundeko koordinatzaile eta Beldur Barik Proiektuaren koordinatzaile nagusiarekin. Elkarrizketa garatu baino lehen, gidoi bat bildu dugu gure ustez esanguratsua izango den informazioa biltzeko edo kontrastatzeko helburuarekin. Amaitzeko, elkarrizketa bat garatu dugu Emakundeko bulego nagusian, Gasteizen.

Bestalde, aurretik informazio bilketa orokor bat egin dugu teknika edo baliabide ezberdinetan oinarriturik. Hortaz, eskuratutako informazioa bigarren mailako informazioa izango dugu, alegia, Beldur Bariken inguruko txostenetan, memoria edo webgunean bilduta dagoena.

2.1. Diagnosia

Beldur Barik Lehiaketa gabezi batzuen baitan garatzea erabaki zuten duela 9 urte. Emakundeetik lehiaketa baten bidez, Beldur Barik proiektua herri desberdinetan EUDELekin zuzenki lan eginez garatzea erabaki zuten. Komunitate txikietan lan eginez, EAEko gazte eta herritar guztiei zuzendu beharreko mezua zabaltzearen beharra antzeman zuten.

2009. urtean, Berdintasuneko saretik ohartu ziren Euskadi Genero Indarkeri kasuak salatzen zuten emakumeen %36a 30 urte baino gutxiago zutela. Hortaz, Emakundek gazteengan prebentzioa eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko beharra zegoela

antzean eta zenbait ikuspegi garatzeko ibilbide baten beharra zegoela ondorioztatu zuen.

Hau da, antzean zen moduan Indarkeriaren gainean egiten den irakurketaren bidez Beldur Barik lehiaketa garatzeko gazteen kontzientzia aldatzeko beharra zegoela ondorioztatu zen. Emakundetik zenbait ikuspegi identifikatu zituzten gazteen egunerokotasunean:

- Irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da.
- Hausnarketa egiten du faktoreen inguruan, indarkeria sexistaren zein indarkeria matxistaren bestelako adierazpenak existitzea ahalbidetzen dituzten inguruan.
- Estereotipotik haratago doa ere, indarkeria fisikoa bikotearen zein bikote ohiaren testuinguruan.
- Gazteek zehazki bizi dituzten ezberdintasun eta sexismo adierazpenak identifikatzen dira, hain zuzen testuinguru anitzetan eta beraien egunerokoan.

2.2. Esku-hartzea eta programazioa

Beldur Barik proiektua aurrera eramateko lehenik eta behin, udaletxeko berdintasun teknikariekin jarri ziren harremanetan Emakundetik. Eztabaida asko izan ondoren, Beldur Bariken parte hartze kolektiboa eta zuzena, gazteak mugitzen ziren guneetan sustatu behar zela erabaki zen.

Esku hartzea bi gune edo etapa ezberdinetan kokatu behar da. Lehenik, irakasleekin egiten den esku hartze zuzena Beldur Barik proiektua garatzerakoan. Bigarren, gazteekin esku hartzen denean parte hartze kolektiboa sustatzerako asmoarekin. Azkenik, gazteei edo EAEko herritarrei zuzendu nahi den mezua lehiaketaren bidez.

Beldur Barik proiektua garatzeko bi teknika berezi erabiltzen dira gazteengan, komunitate baten parte hartzea sustatzeko helburuarekin eta kontzientzia garatzeko grinarekin. Alde batetik, Beldur Barik Lehiaketa eta beste aldetik, honen baitan garatzen den Beldur Barik Topaketa.

Beldur Barik lehiaketa, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendurik dago. Lehiaketaren xedea, ikus-entzunezko produkzioen bidez neska eta mutilek desberdintasun egoeren

aurrean nola erantzuten duten eta nola egiten dioten aurre indarkeria sexistaren adierazpenei azalaraztea izango litzake, Beldur Barik jarrera atxikiturik. Beste aldetik, udalerrietan garatuko da lehiaketaren abiapuntua, berdintasun teknikariak garatuko dute zubi lana eginez Emakunde eta gazteen inguruarekin (ikastetxeak, gazte topaguneak, gaztetxeak, talde feministak...). Iosune Ortizek (2019) elkarrizketan adierazten duen moduan, esku hartzen gehiena, ikastetxe eremuetan izaten da, parte hartzaile gehienak bertako gaztak izan ohi baitira.

Beste teknika bat Beldur Barik proiektua garatzerakoan lehiaketaren barruan sartu daitekeena, urtero egiten den Beldur Barik Topaketa da. Azaroak 25n baitan Topaketa bat egiten da Euskadiko udalerrri batean, gune ezberdinak ipintzen dituzte. eta Bertan, dinamika ezberdinak (hitzaldiak, tailerrak, erakusketak, bazkaria...) gauzatzen dira. 2018 urtean Gasteiz hiriburuan egin zen Beldur Barik Topaketa, eta hirian zehar zenbait gune more ezarri ziren dinamika ezberdinak eginez.

Esku hartzearen xedea, Beldur Barik jarrera bereganatzea da gazteengan. Beldur Barik proiektuaren bitartez zenbait irtenbidetarako proposamenak azalaraztea:

- Indarkeria motak eta horiek sortzen dituzten faktoreak zein adierazpenak identifikatzeaz gain, aurre egitea jarrera kritiko, urratzaile eta positibotik.
- Azaltzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezke. Hortaz, ezinbestekoa dira esku hartzeak aurrera eramaterakoan banakoak zein kolektiboak izatea, alegia, komunitate bati zuzenduta.

Proiektua genero ikuspegiak lantzeko proiektua da. Baina, genero ikuspegi barruan ere helburu ezberdinak planteatzen dira. Iosune Ortizek (2019) adierazten duen moduan elkarrizketan neskak zein mutilen partaidetza sustatu nahi dute, baina azpimarratzen den moduan lanketa berezi bat egin nahi da emakumeak ahalduntze prozesu bat egiteko. Beraz, Beldur Barik proiektuaren baitan bereizketa bat egiten da esku hartze xedearen helburuak gauzatzekoan. Hortaz, Beldur Barik lehiaketan nesken ahalduntzea sustatu nahi da, alegia, burujabetzazko eta autodefentsazko jarreran irudikatzea, indarkeriazko eta ezberdintasunezko egoeren aurrean. Mutilen aldetik, ezberdintasunen, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan eta konprometituan

erakusteko helburuarekin.

Beldur Barik lehiaketan hiru norabide izango dira oinarri, Beldur Barik Jarrera bereganatzeko asmoarekin.

2.2.1. Beldur Barik jarreraren hiru norabideak

Beldur Barik proiektuan hiru norabide edo arloen arabera egiten dute esku hartzea. Kontuan izanik beti ere, prebentzio edo kontzientziazio kanpaina bat izatea duela oinarri.

- *Lehenengo norabidea; Sare erantzun moreak:*

Lehenengo norabide honen helburu nagusia, indarkeria sexista eta kultura matxistaren inguruan hausnartzea da. Indarkeria sexista eta kultura matxistaren aurrean egon daitezkeen erantzun baikor eta urratzaileak ikusarazi eta hauen aurrean zelan jokatzeko argibideak emanez.

Norabide honetan beraz, *Beldur Barik Jarrera* erakutsiz burutu daitezkeen erantzun feministak argira ateratzeko gaiak sustatu nahi dira.

- *Bigarren norabidea: Maitemindu:*

Bigarren norabide honetan gazteek haien arteko harremanetan izaten dituzten jarrera sexistak hauteman eta euren inguruko hausnarketa bultzatu nahi da. Honen bitartez, harremantzeko dauden modu parekide eta anitzak modu inklusibo eta errespetuzkoan ikusarazi nahi zaie gazteei.

Maitasun erromantikoa alboratzen duten harremanak, mutilen arteko korporatibismoa baztertzen duten harremanak, sistema heteropatriarkatuatik kanpo ematen diren harremanak, txat birtualetan egon daitezkeen errespetuzko harremanak, homofobia eta transfobia alboratzen duten harremanak ... hori guztiaren hausnarketa eta plazaratzea bilatzen da norabide honetan.

- *Hirugarren norabidea: TXO! Kontzientzia piztu eta jarrera berriztu!*

Azken norabide hau, agian berritzaliena izango litzateke Beldur Barik Proiektuaren barruan. Iosune Ortizek adierazi zuen moduan, maskulinitate jarrerren lanketa sakon bat egin dute azken urteetan proiektuan zehar. Norabide honen bitartez, maskulinitate hegemonikoari loturiko jokabide, rol eta estereotipoen inguruan hausnarketa bultzatzen da.

Mutil gazteek erasoen kontrako jarrera ikustarazte eta konplizitate kutsakorrari aurre egiteko jarrera plazaratzea du oinarri. Bestetik, rol eta estereotipoen inguruan hausnartu eta nagusitzen diren paternalismo jokabideetatik ihes egitea du helburu.

2.3. Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio orokorra, gauzatzen den urteko memoriaren baitan oinarritzen da. 2011 urtetik eta 2018 urte bitartean emandako aldaketak edo datu esanguratsuak memoriaren baitan bilduz joan dira. Memoria, talde motorrak gauzatzen du, azken urteetan Emakunderen esku geratu da, atal honen egikaritzea.

Beldur Barik Memoriaren tresnak , 2011-2018.

HERRAMI ENTAS	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
CONCURSO	242 trabajos /600 particip antes	128 trabajos /728 particip antes	152 trabajos / 1.066 particip antes	224 trabajos / 1357 particip antes	316 trabajos s/ 2.066 particip antes	363 trabajos / 2.348 particip antes	390 trabajos / 2.664 particip antes	312 trabajos / 2.113 particip antes
PROCESOS LOCALES por niveles		Nivel 1: 9 Nivel 2: 18 Nivel: 16 Total: 41	Nivel 1: 12 Nivel 2: 12 Nivel: 20 Total: 44	Nivel 1: 26 Nivel 2: 12 Nivel: 26 Total: 66	Nivel 1: 32 Nivel 2: 24 Nivel 3: 37 Total: 93	Nivel 1: 15 Nivel 2: 20 Nivel 3: 52 Total: 82	Nivel 1: 63 Nivel 2: 17 Nivel 3: 52 Total: 122	Nivel 1: 8 Nivel 2: 9 Nivel 3: 31 Sin especificar: 13 Total: 61
TOPAKETA	200 personas asistieron	200 personas	200 personas	230 en los talleres y 350 en la entrega de premios	190 en los talleres y 342 en la entrega de premios	118 en los talleres y 250 en la entrega de premios	128 en los talleres y 350 en la entrega de premios	84 en los talleres y 231 en la entrega de premios
WEB	61.808 visitas	337.217	2.870.902	1.094.405*	512.723	496.920	394.327	325.085
REDES SOCIALES	1.000 amistades 100 seguidores 400 seguidores	1.641 428 600	2.003 657 600	2.313 820 --	2.767 1.167 116 29	3.513 1568 337 60	3.831 2000 627 159	4.421 2.243 947 164

Iturria: Emakunde

Iosune Ortizek elkarrizketan argitu zigun moduan, hurrengo urteari begira memorian oinarri izanik, Emakundetik zenbait aldaketa burutzeko intentzioa eta beharra ikusten dute Beldur Barik Proiektuan. Datu kuantitatiboetan oinarritu ezker, azken urtean gazteen partaidetza jaitsi egin dela antzeman daiteke. Bestetik, kualitatiboari dagokionez, aurreko urtean gazteengan prebentzioa eta parte hartzea sustatu zuela lehenengo ondorioztatu dute.

3. Animazioaren praxia

3.1. Egutegia

Hainbat eremu desberdinetan banatzen da Beldur Barik programa. Jarraian banan-banan eta egutegiaren arabera adieraziko dugu kronologikoki egutegia, lehiaketa hasi aurretikoa eta behin martxan jarritakoa, itxi eta geroko ebaluaketa zein jarraibideak azalduz azkenean.

Instituzioen eremua: Atal honetan lehiaketaren aurretik instituzioen aktibazioa eskatu eta informazioa ematen da. Horretarako, lehenik eta behin ekimenaren aurkezpena egiten da Emakunde barnean, gero programaren inguruko planaren aurkezpen eta estrategiaren diseinua bideratuz. Irailean martxan jarriko da Beldur barik programaren aurkezpena beste instituzioetan, hala nola, Arabako Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza zentroetan, Foru Aldundietan eta EUDELen. Esan dezakegu eremu honetan gauzatzen dena hasierako fasea izango litzatekeela, hau da, programaren plana martxan jartzea sustatzen duen fasea.

Data	Entitate parte-hartzailea	Zeregina
Uztaila	Emakunde	Ekimenaren aurkezpen eguna
Abuztua	Emakunde	Programaren inguruko planaren aurkezpena eta estrategien diseinua.
Iraila	Emakunde + Arabako hezkuntza zentroak	Beldur Bariken aurkezpena
	Emakunde + Gipuzkoako hezkuntza zentroak	
	Emakunde + Bizkaiko hezkuntza zentroak	
	Emakunde + Arabako Foru Aldundia	

	Emakunde + Gipuzkoako Foru Aldundia	
	Emakunde + Bizkaiko Foru Aldundia	
	Emakunde + EUDEL	

Talde motorraren eremua: Atal honetan lehiaketaren programa betetzea lortu beharko duen taldearen sorrera eta aktibazioa bideratuko du. Talde hau Emakunde eta EUDEL-en bitartez sortuko da.

Iraila	Emakunde + EUDEL	Talde motorraren lehen elkarretaratze eta ezagutzea
Iraila	Emakunde + EUDEL	Lehiaketa aurkezpena eta aktibazioa

Eremu lokala: Atal honetan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia barruko eremu lokaletan esku-hartuko da. Aurreko urteetan egindako esku-hartzeen dokumentazioaren bilketa bat egingo da eta horietatik aurkezpen lokalei, iragarkien irudien hautaketa eta sorkuntzari, eremu desberdinetako aurkezpenei eta programaren jarraipen indibidualizatuari emango zaie hasiera.

Uztaila + Abuztua	Eremu lokaletan esku hartzeko dokumentuen eguneraketa
Iraila	Beldur bariken aurkezpen lokalak
	Beldur barik irudiaren hautaketa eta sorkuntza
	Hezkuntza eremuan aurkezpenak
	Oinarrizko eremu lokalekin lotura
Urria + Azaroa	Prozesu lokalen inguruko jarraipen indibidualizatu

Beldur barik lehiaketa: Lehiaketan parte hartzeko datak eta programaren bidea. Lehiaketaren lanak aurkezteko epeak, herri bozkatzea eta sariak adieraziko dira.

Iraila + Azaroa (hasiera)	Lehiaketako lanak aurkezteko epea. Bi hilabeteko epea.
Azaroa (erdialdea)	Saria izendatzeko herri bozkatzea sistema
Azaroa (amaiera)	Lan sarituak ezagutzera emango dira (Beldur barik Topaketetan).

Beldur barik lehiaketako ebaluaketa: Ebaluaketa bitartekoa eta amaierako izango da eta talde motorraren bitartez bideratuko da. Hau da lehenengo fasea izango litzatekeena, irailean burutzen dena amaitu eta gero burutzen da aurretiko ebaluaketa, sortu den talde motorraren bitartez. Bigarren ebaluaketa, prestatutako proiektuak izandako emaitzak behin dituztenean burutzen da, hau da, lehiaketa amaituta dagoenean eta kualitatibo zein kuantitatiboki emaitzak dituztenean.

Iraila	Lehiaketaren prestaketako ebaluazioa (Talde motorrak)
Abendua	Prozesu guztiko amaierako ebaluazioa (Talde motorrak)

3.2. Baliabideak

Proiektua aurrera eramateko, baliabideak beharrezkoak dira. Hauek hiru mailatan banatuko ditugu; batetik baliabide materialak, bestetik giza baliabideak eta azkenik, baliabide ekonomikoak. Jarraian hiru maila hauetan banatzen ditugun baliabideen mapa egingo dugu proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren gauzak adieraziz.

- *Baliabide ekonomikoak:*

Baliabide ekonomikoak beharrezkoa den diruaren hutsunea betetzeko bideratuta dago eta gure kasuan Emakunde eta Foru Aldundiaren bidez lortuko dira.

- *Baliabide materialak:*

Baliabide materialak proiektua materialki gauzatzeko beharrezkoak diren elementuak dira. (kamerak, guneak, kartelak..). Kasu honetan nagusiena partaideen esku egongo da, lehiaketan parte hartzeko materiala haiek jartzen baitute. Proiektuko egikarien aldetik, propagandistikoa dena izango da nagusiena baliabide hauen beharretan; kartelak, iragarkiak eta beste hainbat. Hauetariko asko ETBren esku egongo dira eta besteak finantziaketaren bidez sustatu ahal izango dira.

- *Giza baliabideak:*

Giza eta gizarte baliabideak adierazten dira atal honetan, hau da jendearen parte-hartzea ere baliabide bihurtzen da Beldur barik lehiaketako ekimenaren baitan, atal hau gabe ezinezkoa baita programa sustatu ahal izatea.

Beldur barik lehiaketaren kasuan hurrengo hauek dira posible egiten dutenak; Emakundeko berdintasun teknikariak, EUDELeke (Euskadiko Udalen Elkarteko) udaletxeko Berdintasun teknikariak eta irakasleak.

4. Partaidetza

Beldur barik-en badago parte hartze eta inplikazio handia komunitatearen partez, horrela helarazi izan digu Josune ekimen honetako koordinazio teknikariak. Urtez urte gazteen eta komunitate osoaren erantzukizuna eta erantzun onaren maila hobetu joan da, eta horrek ahalbidetu du hobekuntzak ematea plangintza eta gauzapenari begira. Ventosak (2016) adierazten zigun moduan “parte hartzea ez da zer edo zer adierabakarrekoa, zuzenekoa, edo puntuala, ez da lortzen zuzenean lortzen den gauza bat, graduala eta testuinguruan egokitu beharrezkoa baizik; horrenbestez, estrategia edo prozesu bat behar du animazio prozesuarekin batera identifikatzen dena, eta etapa ezberdinetan bereiztuta dagoena”. Beldur Barik-en ere oso modu nabarmenean eman dira parte hartze maila hauek, hau da, informazioa, analisia, balorazioa, ekimena eta erantzukizuna.

Animazio sozio komunitarioko ekimen bakoitzak etapa hauek modu ezberdinetan hartzen ditu bere parte, eta kasu honetan lehiakoetan erabilitako parte hartze eran zentratuko naiz. Esan bezala, Beldur Barik-eko lehiaketa ekimen honetan batez ere ikastetxeekin, ikastola eta instituzioekin harremanetan jarri izan dira. Horretarako, udaletxeetako laguntzaz baliatzen dira euren arteko harremana koordinatzeko. Parte hartze ereduetan zentratuz bi bide antzeman daitezke: ikastetxeak batetik, eta Gazte topaguneak bestetik. Udaletxearen bitartez ikastetxeetako irakasleek informazio guztia jasotzen dute eta hauek dira joaten direnak klaseetara proiektua aurkezteko, eta hortik ikasleen parte hartzea bultzatu eta ematen da. Bestalde, Gazte Topagunetatik hezkidetzako teknikariek bultzatu egiten dute horrelako ekimenak. Gainera, gero eta eskola gehiagotan teknikari mota hauek sartzen ari dira eta hori aurrerapauso handia da horrelako proiektuak aurrera eramateko.

Ildo beretik jarraituz, gero eta gazte gehiago parte hartzen ari dira Gazte Topagunetik, baina horrekin lotuta dagoen beste eremu emankor bat talde feministena da. Hots, Beldur Barik-etik lehiaketan parte hartzea bultzatzeaz aparte, gazteak mobilizatzeaz eta herriko edo hiriko talde feministak ezagutzeaz baliatzen da, gazteei hauek aurkeztuz. Ezagutzeko eta hauen parte izateko aukera oso ona da edo bestela, euren bizigunetik gertu baldiz ez badaude beraiek talde feminista berriak sortzeko indarra eta gogoak transmititzeko. Beraz, lehiaketan hainbeste urteetan izan duen ekarpenarekin ikastetxeak

aparte kaleko lekuetara ere heldu behar zirela aztertu izan da. Horretarako, gaztetxe eta elkarte bidez ere bultzatu da horrelako parte hartzea, hauetatik 18-26 bigarren kategoriako gazte asko lortuz.

Horrez gain, badago ekimen honek garrantzi handia ematen dion faktore bati, kooperazioa eta elkarren arteko laguntza. Izan ere, zuzenean edo zeharka proiektuaren barne dauden antolatzaile guztien arteko lana erabakigarria da parte hartze koordinatua aurrera eramateko. Eitb-ren kasuan urtean zehar Lehiaketaren publizitatea eta jarraipena eman da. EHU-k, aldiz, urtean zehar bilerak izan ditu koordinazioko teknikariek, baita elkarren arteko mailak ugariak ere izan dira. Eusko Jaurlaritzako Gazte zuzendariarekin eta Hezkuntza Sailarekin tokiko aurkezpenak egon dira ikastoletan bertan. Bukatzeko, Foru Aldundien parte handiena finantziarioa izan arren, Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) batera lanean elkar aritu dira ekimen honetako teknikariek. Beraz, argi dago erakunde zein instituzio guzti hauen ekarpena ordenatuta eta eraginkorra izan dadin elkarren arteko komunikazioa eta harreman estua bultzatu izan da.

Parte hartze moduarekin amaitzeko, aipatu beharra dago erabakigarria izan dela estrategia komunikatiboa izatea eta horretarako programa hiru faktoreetan oinarritzen da. Lehenengoa sare sozialak eta web orria eguneratzea izango zen eginkizun nagusia. Urtez urte antzeman izan da informazioa eta bideoen oihartzuna eta eskuragarritasuna hobetu dela gazteek erabiltzen dituzten tresnen bidez, hau da, Facebook, Instagram, Spotify, Telegram, Youtube, Vimeo eta abar. Bigarrena komunikabideen erabilpena da, momentu zehatzak erabiliz informazioa trukatzeko eta publizitatea egiteko (Azaroak 25, Jaiak, Topaketak). Hirugarrena, ordea, aurretik azaldu den moduan instituzioen arteko koordinazio komunikatiboa da non guztien lana modu integral batean bideratuta ahalko den.

4.1. Komunitatean izandako eragina

Lehiaketaren ekimena komunitatean izan duen eragina neurtu dadin “Urteko Memoria” gauzatzen da, gizarte osoaren eskura dagoena eta hortik ere informazio asko jaso izan dugu animazio sozio komunitarioko txosten honen datuak lortzeko. Adibidez, 2019ko Memorian agertzen da taula bat non adierazten da lehenengo urtetik azkeneko urtera

arte emandako parte hartzaileen kopuruaren hazkundera (Lehiaketan 2009. urtean 600 pertsona eta 2018. urtean 2113 pertsona; Topaketetan 2009. urtean 200 pertsona eta 2019. urtean 300 pertsona; Sare sozialetan 2009. urtean 800 pertsona eta 2019. urtean 4500 pertsona). Halere, nahiz eta indarkeri sexista eta matxistak hobetu identifikatu, gizartean beran genero indarkeriaren kopurua ez da jaitsi, kontrakoa, jazarpenak gehitu egin dira programa hau hasi zenetik.

Beraz, esan ahal da beraiek gehiago prebentzio lanean jarduten dutela egunerokotasunean ikasle horiek ere jarrera matxistak eta sexistak erreproduzitzen dituztela identifikatzeko. Honen adierazletako bat izan daiteke hezkuntza zentroetan bigarren hezkuntzan Martxoak 8 eta Azaroak 25 egunetan eman den parte hartze handia, non beharrezkoa egiten den gai horiek jorratzen jarraitzea.

Beste puntu bat kontuan hartzekoa, eta Josunek berak elkarrizketan esan zigun moduan, nahiz eta gero eta ikasle gehiago parte hartu programaren ekimen ezberdinetan, egia da maiz irakasle askok, programa hauek aurrera eramaten dituztenak, ez daukate formakuntzarik genero problematikan, eta horrek eragozten du ikasleen baliozko ikaskuntza eta ekarpena eratu eta jasotzerakoan.

Bukatzeko, lehiaketako datu batzuk ematearren, lanak herriz herri antolatuak izan dira eta ebaluaketa orokor bat egin da. Eskualdeka landuz, Araban bideoen %55a soilik Gasteizen egin dira, eta %45a Laudion. Hau da, bi tokietan bakarrik parte hartu dute gehienbat. Horrelako kasuak asko ematen dira Araban, hiriburuan masifikatzen direlako zerbitzu eta ekintza gehienak, horrelako dinamikak egiteko bezain beste profesional ez izanez. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gutxi gorabehera bideoen %25a egiten da hiriburuetan, herrietan lehiaketen parte hartzea askoz nabariagoa izanez.

Ondorioak

Beldur Barik programa eta zehazki lehiaketa aztertu ondoren honako ondorio edo hausnarketa hauek atera ditugu:

Alde batetik, ikusi dugu proiektuak arrakasta handia izan zuela bere hasierako urteetan. Gazteekin edo nerabeekin lanketa bat burutzeko oso modu egokia da ikus-entzunezkoen erreminta. Garbi ikus daiteke hau bezalako lehiaketa batean parte-hartzea, askoz ere erakargarriagoa dela betiko ikasketa klasikoekin alderatu ezker. Arrakasta beraz gaia lantzeko originaltasun horretan dagoela uste dugu.

Baina aldi berean, arrakasta horrek muga bat duela uste dugu, hau da, epe-muga. Azken urteetan aipatu dute lehiaketaren parte-hartzea jaitsi egin dela, beraz, eraberritu edo birplanteaketa bat eskatzen duela dirudi. Hemendik ondorioztatzen dugu, ASK-eko ekimen bat egokia dela baina ez dela erabili behar “gehiegikeriaz” edo modu “errepikakorrean”.

Epe luze honetan hala ere beste alderdi positibo bat azaldu da, izan ere, lehenengo lanetatik gaur egunekoetara aldea antzeman da. Hasierako ikus-entzunezko guztiak edo ia guztiak biolentzia fisikoaren adierazle ziren, emakume kolpatuak, erasotutak etab. Azken urteko lanetan ordea beste biolentzia mota batzuk agertu dira, beraz, badirudi gazteak geroz eta kontzientzia feministagoa dutela eta mota desberdineko biolentziak identifikatzen dituztela.

Bestalde, talde bezala izan ditugun zailtasun edo hausnarketak plazaratuko ditugu, denontzat proiektua ezaguna izan arren, astelehenetan soilik elkar ikusten garenez, zaila egin zaigu modu kohesionatu batean lan egitea. Gainera, elkarrizketak egiteko zailtasunak izan ditugu, idatzi edo kontaktatutako profesionalek ezezkoa eman baitziguten behin eta berriz. Agian, proiektu honen lanketa edo analisi bat egiteko denbora gehiago edukitzea ere interesgarria litzateke.

Oro har, ASK-eko ekimen bezala oso interesgarria dela ikusi dugu eta bere fruituak emankorrak izan direla ere bai. Gai konplexu asko lantzeko ditugun erreminta eta metodologia desberdinak lantzea beraz oso garrantzitsua dela ohartu gara.

Bibliografia

- Ander-Egg, Ezequiel. (1986).Diccionario de Trabajo Social. Bogotá, Colombia: Ed. Colombia Ltda.
- Beldur Barik. (2009). Beldur Barik. Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea. Retrieved from <http://beldurbarik.org/es>
- Ventosa V.J. (2016): Didáctica de la participación, teoría y metodología. Narcea, Madril.